

Datuen babesa informaziorako eskubidearen aurrean: arriskuan zorra kitatzeko prozesua abian jartzea

Zergatik blokeatu daiteke prozesua zenbait ikastetxetan?

Enpresa batzuek, Batzorde Paritarioan prozedurari buruz adostutakoaren indefinizioaz baliatu nahi dute. Izan ere, zorra kitatzeko prozeduraz negoziatu zenean ez ELAK ez *Kristau Eskolak* ez zuten nahi izan **steilassen** eskaera bat aintzat hartu. Eskaera hori ikastetxe askotan faltan bota dute orain. Gure ustez prozedurak jaso behar zuen ezinbestekoa dela enpresak urte bakoitzeko -2012tik 2015era- zor osoa -langile guztiena- dokumentatzeko konpromisoa. Jakina denez zorra norbanakoari aitortu zaio eta Datuak Babesteko Legearen aplikazioaren ondorioz ordezkari sindikalek bere garaian baimena eman zutenen datuak soilik ezagutzen dituzte.

Zergatik sortzen ari da arazoa?

Zorraren lehen ordainketa (2016koa) era proportzionalen egiteko ezinbestean jakin behar dugu zenbatekoa den (ikastetxearen zor osoa urte bakoitzean). Enpresa batzuk Datuak Babesteko Legea aitzakiatzat hartzen ari dira norbanakoen zorraren inguruko informazioa Komitekideei ez emateko. Zerrenda hori eskuratu ondoren jubilatutak eta aldi bateko langileak kendu behar dira (kobratu omen dutelako). Ezinbestekoa da datu horiek guztiak jakitea zorraren azken zenbatekoa (ikastetxeak urte horretan duen zorra) jakiteko. Ondoren, zifra horren arabera banatuko da Batzorde Paritarioak zehazten duen dirua. Ez da nahikoa, jakina- enpresak zifra huts bat ematea, justifikatuta ez badago; prozedura zalantzan legoke.

Uko egin diezaioke enpresak datu pertsonalak ordezkari pasatzeari?

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak "*Datu pertsonalen babesa lan harremanetan*" izeneko gidan Enpresa Batzordeei datuak uztearen inguruan hitzegiten du. Langileen Estatutuak ordezkariari ematen dizkien eskubideak aritzeak norbanakoen datuak uztea ahalbidetzen duela zehazten du. Horretarako datuak babesteko oinarrizko irizpideak gordetzeak eskatzen du. Besteak beste:

- Soilik behar-beharrezkoa denean utzi daitezke. (Kasu honetan bezala)
- Informazioa era anonimoan ematea adostu daiteke (gure proposamenaren arabera, zerrendak NANaren azken zenbakiekin) nahikoa bada, bederen.
- Informazioaren hartzaileak aurreikusitakoak baino ez dira (Enpresa batzordea eta ez sindikatuak)
- Informazio eskuratzen dutenek sekretua gorde behar dute (*deber de sigilo* delakoa) eta ezin dute beste baterako erabili datu horiek.

Beraz, prozedurak gutxieneko bermea izan dezan ordezkari sindikalei beharrezko informazio ukatzeko Datuak Babestea aitzakiatzat erabiltzeak ez dauka zentsurik

Eta enpresak datuak ez uzteari eusten badio?

Kasu honetan bi jokabide baino ez daude:

- 1.- Zorra ordaintzeko prozedura blokeatzen da eta Batzorde Paritariora doa, hura baita edozein desadostasun konpondu behar duena
- 2.- Lan Ikuskaritzara jo eta gertatukoaren berri eman, informazioaren eskubidearen kontra doalako enpresaren jarrera hori.